

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROL ETA OSASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022eko abenduaren 30an hartutako erabakiaren laburpena: arlo sozio-sanitarioko irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakunde pribatuei 2023an dirulaguntzak emateko deialdi publikoaren oinarri espezifikoak onesten ditu horrek

BDNS(Identif.): 671195

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/conocatoria/671195>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehena. Onuradunak

Arlo sanitarioko irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakunde pribatuak, beren estatutuetako helburuen artean berariaz aitortzen badute gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko edo gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak egitea. Vitoria-Gasteizko biztanleria da jarduera-eremua.

Bigarrena. Helburua

Irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio eta entitateen proiektuak laguntzea da deialdiaren helburua, gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuak egiteko, beti ere Vitoria-Gasteizko biztanleei zuzenduta badaude.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez onetsiak.

Laugarrena. Zenbatekoa

420.032,46 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

20 egun balioudun, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 30a

Osasun Publikoaren Zerbitzuko burua
ANA BAZTERRICA MANCEBO